

Ekaitz Aramendi Saez de Nanclares

D maila • 1 saria

Kaixo! Ni Ekaitz Aramendi naiz, 2003ko uztailaren 7an jaioa, 13 urte ditut eta Gabirian bizi naiz.

Lehen Hezkuntza Gabiriako Balentzategi Herri Eskolan egin nuen eta, gaur egun, Beasaingo Loinazpe Institutuan DBH 2. mailan ari naiz ikasketak egiten. Nire zaletasunak, bertsoez gain, futbola eta judoa dira.

Pozik nago sari hau irabazteagatik eta ea aurrerantzean ere gehiago lortzen ditudan!



EUSKARA

Doinua: Pello Joxepe

Gure hizkuntza gaitzat hartuta
Egingo det bertso sorta
Susmoa daukat ez ote zaigun
Hura gehiegi inporta
Beti bestei errua botaz,
Ezin ta har zagun nota
Aitzaki bila etxean hasi
Baloia kanpora ez bota

Mendetan zehar eutsi diogu
Erresuma ta herritan
Zenbait idatzi azaldu dira
Kobazulotan, harritan
Oraindik ere zabaldu behar du
Gure euskarak sarritan
Bat errezena ta normalena
Ohikoa ez dan tokitan

Beti bigarren mailan jartzen da
Ta uzten dute atzera
Bertsolaritzan, literaturan
Danean doa topera
Baino badira puntu illunak
Jendearen arabera
Herri indarra behar du euskerak
Jarraitu dezan aurrera

Kalera irten eta euskeraz
Behar degu lehen hitza
Bestela gure buruai kontra
Egin asmotan gabiltza
Hemendik dei bat luzatu nahi det
Eta piztu argi printza
Euskera hutsez egin dezagun
Eguneroko bizitza